araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Ramiro Gonzálezek lehen sektoreko ordezkariekin egiten dituen bilerak berriro hasi ditu Arabako Lautadan

Diputatu nagusiak bigarren bilera sorta bati ekin dio Dulantzin, joan den udaberrian nekazariek eta abeltzainek planteatutako gaiei jarraipena emateko

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 2a. Ramiro González Arabako diputatu nagusiak lehen sektoreko ordezkariekin egiten dituen bilerak berriro hasi ditu gaur arratsaldean, Dulantzin. Kultur Etxean egindako bilera bigarren bilera sorta honetako lehena izan da, eta joan den udaberrian lurraldeko hainbat eskualdetan egindako bost bilerei jarraipena ematea du helburu.

Bilera haietan, diputatu nagusiak, Noemí Aguirre Nekazaritza diputatuarekin batera, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien egoera bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen, baita sektoreko profesionalen kezka eta proposamen nagusiak entzuteko ere. Bilera sorta haren amaieran, parte hartu zuten pertsonekin harremanetan jarraitzeko eta planteatutako gaien bilakaera aztertzeko bilera berriak egiteko konpromisoa hartu zuen.

Helburu horrekin, gaurko bileran laborantza estentsiboekin lotutako hainbat erakunde, kooperatiba eta ustiategitako ordezkariak elkartu dira. Bilerak aukera eman du martxoaren 31n landutako gaiak berriro aztertzeko, azken hilabeteetan izan duten bilakaerari buruzko informazioa partekatzeko eta bertaratutakoen ekarpen berriak jasotzeko.

Aztertutako gaien artean daude ustiategien errentagarritasuna eta ekoizpen kostuen igoera, ureztatzeko azpiegituren egoera, inbertsio beharrak, laboreen dibertsifikazioa eta belaunaldi erreleboa. Halaber, udako baldintza meteorologikoek izan duten eragina ere aztertu da, bereziki tenperatura altuek eta prezipitazio faltak nekazaritza jardueran eragindako zailtasunak.

Era berean, bilerak aukera eman du sektoreak bizi duen ziurgabetasun klimatiko eta ekonomikoaren testuinguruan dituen erronkei buruzko iritziak trukatzeko, baita nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak egokitzeko beharrei buruz hitz egiteko ere.

Dulantziko bilerarekin hasi da harreman sorta berri hau. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiak jarraipena emango dio informazio trukeari eta lurraldeko lehen sektorean lan egiten duten pertsonekin duen zuzeneko elkarrizketari.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus